

ZAINZA KONTUAK 8 PROPOSAMEN ZAINZA-SISTEMA PUBLIKO BATERANTZ AURRERA EGITEKO

**2023KO URRIAK 29
ZAINZA ETA LAGUNTZAREN
NAZIOARTEKO EGUNA**

UGT Zerbitzu Publikoetan beharrezkotzat jotzen dugu ekintza sindikala indartzea, gure gizartean zaintzak lehentasuna izan dezan. Horregatik, egunero lan egiten dugu:

1.- ZAINZA SISTEMA PUBLIKO FEMINISTA BAT ERAIKITZEA

Pertsona guztientzat hurbila, unibertsala, eskuragarria eta bidezkoa izango den zaintza-sistema publiko bat garatzearen aldeko apustua egiten dugu. Beharrezkoa da administrazio publikoen aurrekontuetan ikuspegi feminista txertatzea, ordaindu gabeko zaintzak aitortu, murriztu eta berbanatzeko.

2.- PERTSONAK ZAINZA-EREDUAREN ZENTROAN KOKATZEA

Pertsonengan oinarritutako eredu bat garatzea haien berezitasuna aitortzea da, eta beraien autonomia sustatzeko dituzten gaitasunetan, erabakietan, lehentasunetan eta aukeretan zentratzea. Eredu integrala eta profesionalizatua bultzatzea da, beharrei erantzun ahal izateko, arreta berezia jarriz zaintza-eskubideak bereziki babestu behar dituen egoeretan. Beraz, sistema pertsonengana egokitzea da, eta ez pertsonak zaintza-sistemara.

3.- ZERBITZU PUBLIKO GEHIAGO

Egungo zaintza-beharrei kalitatezko erantzuna emateko, premiazkoa da horiei lotutako zerbitzu publikoak indartzea eta zabaltzea; inbertsioa handitu behar da besteak beste zerbitzu publiko hauetan: mendekotasunaren arreta, gizarte zerbitzuak, osasuna eta hezkuntza zerbitzuak. Gainera, ekitatea bermatzeko, administrazioak zuzenean eman behar ditu zerbitzu hauek, esku hartzeko eta jarduteko erantzun onenak ahalbidetuz.

4.- KOORDINAZIOA HOBETZEA, ERAGINKORTASUNA BERMATZECO

Orain arte zaintza-zerbitzu publikoen kudeaketan izandako esperientziak erakusten digu oinarritzkoa dela maila anitzeko (estatukoa, autonomikoa eta tokikoa) jarduera-, koordinazio- eta lankidetzeta-sistema bat garatzea, zaintza-politikak integralak eta eraginkorrak izan daitezen atal guztietan, diseinutik hasiz eta ezarpenean amaituz.

55.- ZAINZA-LANEAN BALDINTZA DUINAK.

Soldata duinak behar dira, eta tradizioz emakumeek egiten dituzten zaintza-lanetan gertatzen den prekarietatea ezabatu. Arreta berezia jarri behar zaie diskriminazio anizkoitzaren faktoreei, hala nola jatorriari, etniari, desgaitasunari, indarkeria matxistaren biktima izateari edo guraso bakarreko familia izateari.

6.- ZAINZEN DUENA ZAINZEA

Funtsezkoa da zaintzetako langileen lan- eta osasun-baldintzen ondorioak ikusaraztea, aitortzen ez dena ez delako existitzen. Funtsezkoa da genero-ikuspegia sartzea prebentzio-jarduera guztietan, eta funtsezkoa da adierazle espezifikoak garatzea eta lan-istripuak eta gaixotasun profesionalak ikertzea, segurtasuna eta osasuna behar bezala babesten direla bermatzeko.

7.- IKUSKAPENA INDARTZEA

Beharrezkoa da Ikuskaritzaren lana indartzea diskriminazioari aurre egiten dion lan-arloko araudia zaintzeko eta betearazteko (bai lege- eta erregelamendu-xedapenei dagokienez, bai hitzarmen kolektiboen arau-edukiari dagokionez). Funtsezkoa da eremu geografiko nazional osoko jarduna bultzatzea eta koordinatzea, modu homogeneoan gerta dadin.

8.- ESKUBIDEAK ERABILTZEAN OINARRITUTAKO KALITATEA

Berdintasun hitzarmenak eta planak negoziatzeko behar diren baliabideak bermatzea funtsezkoa da zaintza-lanen kalitaterako, besteak beste, kontziliazioarekin, sustapenarekin, lan-giro osasungarrien garapenarekin eta sexu-jazarpena edo sexuagatiko jazarpena prebenitzearekin lotutako eskubideak gauzatu ahal izateko.

